BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4840

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 4koa, Gazteria eta Kiroletako zuzendariarena, Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzaren estatutuetan egindako aldaketak onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen dituena.

Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntza EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu zen 1988-05-18an, 147. zenbakiarekin. Orain Federazioaren estatutuak berriro idatzi dira.

Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak 2014ko maiatzaren 15ean egindako ezohiko batzar orokorrean bere estatutuetako aldaketak onartu zituen, eta onarpen hori agiri bidez egiaztatu da.

Aldaketa hori bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Horren ondorioz, nire eskumenen jardunean, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzaren estatutuetako aldaketak onartzea eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea. Estatutu hori honela idatzita gelditzen da:

3. artikulua.– Euskadiko Arku Tiro Federazioaren helbidea:

Amadeo Garcia Salazar plaza, 1, 2. bulegoa. 01007 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du eta, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Kiroletako zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, jakinarazi eta bi hileko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 4a.

Gazteriako eta Kiroletako zuzendaria,
JON REDONDO LERTXUNDI.